

Herri txikien etorkizunari buruzko biltzarra egingo dute Zerainen

Eusko Ikaskuntzak eta ZerainLab guneak antolatuta, heldu den ostegunetik aurrera herri txikien etorkizunari buruzko nazioarteko bil-

tzarra egingo dute Zerainen. 50 bat auzokidek parte hartu dute antolakuntza lanetan, eta egitarau oparoa izango du larunbatera bitartean.

GARA | DONOSTIA

Azaroaren 17tik (datorren osteguna) 19ra (larunbata) landa eremuko herri txikien garapenerari, ezaugarri bereziei eta etorkizunari buruz hausnartuko dute Zerainen. Herri txikien komunitate harremanak, ingurunearekiko harreman jasangarriak eta ekonomia garapenerako eredu berritzaileak aztertzeko aukera emango du nazioarteko biltzar honek.

Eusko Ikaskuntzak eta ZerainLab esperimentazio guneak antolatu dute hitzordua, Gipuzkoako Aldundiaren babesarekin, eta Europako eredu erreferenteak nahiz Euskal Herri mailako esperientzia anitzak jasoko ditu. Antolatzaileek azaldu dutenez, teoria praxiarekin tartekatuko

dute. Modulu teorikoan, komunitate bizitzaren sustrai bereziak eta etorkizuneko erronkak izango dira eztabaidagai, baita landa garapenerako eredu berriak ere. Modulu praktikoa, herrigintzan ari diren hainbat ekimenen berri emango dute, elkar ezagutu eta etorkizunean balizko aliantzak sor daitezkeen.

Euskara, ingelesa eta gaztelania erabiliko dituzte, eta interpretazio zerbitzua izango da. Saioak irekiak dira eta parte hartu nahi duenak Eusko Ikaskuntzaren web orrian (www.eusko-ikaskuntza.eus) izena eman behar du asteartea baino lehen.

Egitarau zabala

Ostegunean, agintarien arteko mahai-inguruarekin hasiko da biltzarra, non landa garapena-

ADIERAZPENA

Foroaren amaieran, eta biltzarrean lortutako ondorioen arabera, Zeraingo Adierazpena idatzi eta gizarteratuko dute. Horrez gain, herritarrekin batera festa giroan esango diote agur topaketari, herri bazkaria, bertso saioa eta dantzaldia antolatu baitituzte.

ren eremuan administrazio publikoaren ikuspegia eta politika zehatzak aipatuko dituzten. Ostiral goizean, besteak beste, XXI. mendeko komunitate bizitzaz eta erroetako usadio eta kulturaz arituko dira. Geroxeago, landa garapenerako erronkak aztertuko dituzte, eta arratsaldean Euskal Herri osoko hamabost praxi-esperientzia landuko dituzte, arteak, turismoa edo kultura bezalako eremuetan jorratutako ereduak aztertuz.

Larunbatean, etorkizuna irudikatzen talde dinamika egingo dute. Bertan, herri txikiengat zer-nolako etorkizuna nahiko luketen adieraziko dute parte-hartzaileek, eta agertoki horretara iristeko eman beharreko urratsak identifikatuko dituzte.

AECC Gipuzkoa aporta 1,9 millones en cuatro años para investigar

GARA | DONOSTIA

La Asociación Contra el Cáncer (AECC) de Gipuzkoa ha financiado con 1,9 millones de euros en cuatro años la investigación oncológica al tiempo que ha abierto en 2016 una cuarta sede en Eibar y ha puesto en marcha un piso de acogida para familiares de pacientes de larga duración en Donostia.

La capital guipuzcoana acogió ayer el encuentro anual de voluntarios de la AECC guipuzcoana, que alcanza los 10.500 socios, lo que supone un incremento del 17 % respecto a 2015, y cuenta con un millar de voluntarios. La sede de Eibar atenderá también a los vecinos de Elgoibar, Mendaro, Soraluze, Deba y Mutriku.

Mintzodromoa egin dute Atlantikoaren bi aldeetan estreinakoz

GARA | DONOSTIA

Aurten lehenengo aldiz, Necocheako (Argentina) Euskararen Astean Mintzodromo erraldoi bat egin dute eta, babesa erakusteko, Mintzantek ere Euskal Herrian beste bat antolatu zuen atzo. Arratsalde partean, Zubietan bazkaria egin ostean, zuzeneko konexioa egin zuten Argentinakoekin, Mintzodromoari

elkarrekin ekiteko. Atlantikoaren alde batean eta bestean bildu zirenak harremanetan egon ziren, sarearen bidez konektatuta.

Horrez gain, atzoko hitzorduan III. Mintzanet sariak eman zituzten. Euskarazko mintzapraktikak Internet bidez egiteko plataforma horretan parte hartzen duten bi pertsonaren lana aitortu zuten: bidelaria eta bidelaguna.



Necochea eta Zubietan, internet bidez konektatuta. Andoni CANELLADA | ARP



Kanpaina bukatuta, 200 lagunek argazki kolektiboa egin zuten Agurainen. GARA

«Agurainen 75 ordu» bukatuta, erronka indibidualen garaia hasi dela adierazi dute

GARA | GASTEIZ

Hilabete luzez prestatzen egon ostean, asteartean «Agurainen 75 ordu» ekimena hasi zuten, eta ostiral iluntzera arte 280 aguraindarrek euskaraz bizitzeko nahia erakutsi eta denbora horretan hori posible dela erakutsi zuten. Horretarako, 132 saltoki, taberna, elkarte eta establezi-

menduk babesa eman zioten ekimenari. Ostiralean, arratsaldeko 20.30ean, bukaera eman zioten erronkari, 200 lagunekin argazki kolektiboa eginez. Kanpaina ezaugarritu duen berde kolorea soinean, eskuetan linterna bana zutela, 75 zenbakia- ren irudi erraldoia osatu zuten.

Antolatzaileek nabarmendu zuten, ekimen zehatz hau bu-

katzeak ez du esan nahi parte-hartzaileen konpromisoa bukatu denik. Alderantziz baizik. «Bakoitzaren hausnarketaren garaia iritsi da. Erronka indibiduala, lau egun hauetan egin den bezalaxe geure buruari jarritako mugen gainetik pasatu eta euskaraz bizitzaren aldeko erronka» da orain datorrena, adierazi zuten.